



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 11

60. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jar dezan. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak onetsitako laguntza zuzenen sektore onuradunen zerrenda zabal dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan Agoizko, Artziko, Longidako eta Orotz-Beteluko udalekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin zein Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin, lurralde horri bul-tzada emateko bitartekoak lantze aldera. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea 2+2 edukiera handiko erre-pide/autobia bihur dezan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tributu-neurriei buruzkoa. Ain-hoa Unzu Gárate andreak egin du (12. or.).

- Galdera, zor-jaulkipena ezagutzera emate aldera nazioarteko entitate eta inbertsiogileekin izandako bilerei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (12. or.).
- Galdera, maiatzaren 9tik aitzinako deseskalatze-prozesuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko landa-planari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (14. or.).
- Galdera, gurasoen koordinatzailearen figurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko maiatzaren 5ean hartutako Erabakiaren bidez, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia. (10-21/LEY-00002)

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Gobernuak, 2021-2026 aldian, Suspertzerako Europako Bitartekoaren (Next Generation EB) funtsak kudeatuko ditu, honako hauetarako:

a) Bitartekoak erabiltzea ekonomia suspertzeko, kalteak konpontzeko eta krisitik indartuta ateratzeko.

b) Neurriak hartzea inbertsio pribatua bultzatzeko eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko.

c) Europar Batasuneko funtsezko programak indartzea, krisitik zer ikasia ateratzeko, merkatu bakarra indartsuagoa eta erresilienteagoa izateko, eta trantsizio ekologiko eta digitala bizkortzeko.

Funts horiek ahalik eta hobekien kudeatzeko, ezarritako helburuak lortzeko behar diren mekanismoak antolatu nahi dira. Horretarako, beharrezkoa da aurrekontu-araudia aldatzea bi puntutan: batetik, salbuespen gisa zorpetze-maila handitzeko baimena emateari dagokionez, eta, bestetik, aurrekontuko partiden arteko funts-mugimenduak mugatzeari dagokionez.

Hala, lehenengo gaiari dagokionez, orain planteatzen den aldi baterako zorpetzeak aukera ematen du REACT-EB programaren Europako funtsen erabilera arintzeko eta aurreratzeko, EBren baliabideak jaso aurretik, COVID-19ak eragindako pandemiaren inpaktuari erantzuteko asmoz, ongizate-estatua sendotuz, zerbitzu publikoak blindatuz eta ekonomia suspertuz. Horretarako, 4 bis apartatua gehitzen zaio 20/2020 Foru Legearen 15. artikuluari.

Estatuko Aurrekontu Orokorren ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria ildo beretik doa.

Bigarren gaiari dagokionez, kontuan hartu behar da funts horien zati bat, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik datozenak, Estatuko Aurrekontu Orokorretan zuzkitutako kredituak direla, aurrekontu-atal bakoitzeko «Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoa» izeneko 50. zerbitzuan. Funts horiek beren arau-esparruaren arabera hautagarriak diren jarduerak finantzatzeko baino ezin izanen dira gauzatu.

Estatuko Administrazioetik jasotako transferentzien diru-sarrerak, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik datozenak, Berreskuratzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planeko proiektu edo ekintza-lerroak estaltzera bideratutako aurrekontu-kredituak finantzatzera lotuta daude legez. Gasturik egiten ez bada, Nafarroako Gobernuak Altxorrari itzuli beharko dizkio esleitutako helbururako erabiliko ez diren funtsak. Ondorio horietarako, itzulketa-prozedura Ogasuneko ministroaren agindu bidez arautuko da.

Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoan onartutako proiektu bakoitzaren aurrekontuko gastu-partidak helburu horretarako eta antzeko beste batzuetarako sortutako atributuen moduluen bidez identifikatuko dira.

Horren jarraipena egin ahal izateko, urteko kontuen formulazioan, diruzaintza-geldikin lotuan, jarduketa horiek estaltzera bideratutako zati lotua bereiziko da.

Horretarako, 62. artikulua gehitzen zaio 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legeari.

Bestalde, antzemandako akatsak zuzentzeko, 2021erako gastu-aurrekontuko bost partidaren izena aldatzen da.

Hala, lehenik eta behin, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari dagokion partiden arabeko gastu-aurrekontuan, "080002 08100 4819 232208 (E) Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera" aurrekontuko partida hemendik aurrera "080002 08100 4819 232208 (E) giza salerosketaren aurkako ekintzarekiko hitzarmena. Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera" izanen da.

Bigarrenik, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari dagokion partiden arabeko gastu-aurrekontuan, "F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzekeko Plana. Aita Lasa fundazioarekiko hitzarmena" aurrekontuko partida aurrerantzean "F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzekeko

Plana. San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibilarekiko hitzarmena" izanen da. Aldatzen da izena zuzena ez delako; izan ere, dirulaguntza San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibilari eman behar zaio, juridikoki haren mende baitago Aita Lasa zentroa, diruz lagundutako jarduera egingo duena.

Hirugarrenik, Kultura eta Kirol Departamentuak bi aldaketa proposatzen ditu bere gastu-aurrekontuan: "A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin Lekarozko Campuserako kirol-plan gidari bat idazteko" aurrekontuko partida hemendik aurrera "A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin, Baztango kirol-instalazioen plan bat idazteko" izanen da; eta "A50001 A5410 7609 336117 Garesko frontoia eraberritzea" aurrekontuko partida, aldiz, A50001 A5410 7609 336117 "Gareskoa frontoia eraberritzea 2019an eta 2020an" izanen da.

Azkenik, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuari dagokion partiden arabeko gastu-aurrekontuan, "B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaldeen merkataritza antolatzeko plana" aurrekontuko partida aurrerantzean "B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaz gaindiko merkataritzari buruzko azterlana" izanen da.

Artikulu bakarra. 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzea.

Bat. 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen 15. artikuluari 4 bis apartatua erantsen zaio. Hona hemen haren testua:

"4 bis. Salbuespen gisa, 2021ean, ekitaldiaren itxieran zorpetze garbia handitzeko baimena eman ahal izanen da, Europako Lurraldeak eta Kohezio Berreskuratzeko Laguntza (REACT-EB) azkar hedatu eta gauzatzeko behar diren baliabideetan denbora-desfaseak estaltzeko. Kasu horretan, REACT-EB laguntza artikulatzen duen eskualdeko programa operatiboari dagozkion gastuen ziurtapenaren bidez lortutako baliabideak zorra amortizatzen bideratu beharko dira, helburu horretarako egindako zorpetzea kitatzeko adina. REACT-EB baliabide gehigarriak artikulatzen dituzten programa operatiboak ixtean, zorpetze-maila garbia murriztu beharko da, helburu horretarako bideratutako zor-eragiketaren gainerako zenbatekoa berdintzeko adina".

Bi. 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legeari 62. artikulua gehitzen zaio. Hona hemen haren testua:

“62. artikulua.

Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kredituak kudeatzea.

Funtsen mugimenduak egin ahal izanen dira Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoan Estatuko Administrazioako organo eskudunak onartutako proiektu bakoitzari dagozkion partiden artean, eta, nolana ere, kudeaketa agintaritzak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuaren 46. artikuluan aipatzen den identifikazio-kodea esleitzen dionean.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funtsen mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren. Funtsen mugimendu horiek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Next Generation Bulegoko titularraren adostasuna izan behar du.

Hiru. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari dagozkion partiden araberako gastu-aurrekontuan, “080002 08100 4819 232208 (E) Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera” aurrekontuko partida hemendik aurrera “080002 08100 4819 232208 (E) giza salerosketaren aurkako ekintzarekiko hitzarmena. Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera” izanen da.

Lau. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari dagozkion partiden araberako

gastu-aurrekontuan, “F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzeke Plana. Aita Lasa fundazioarekiko hitzarmena”, aurrerantzean “F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzeke Plana. San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibilarekiko hitzarmena” izanen da.

Bost. Kultura eta Kirol Departamentuari dagozkion partiden araberako gastu-aurrekontuan, “A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin Lekarozko Campuserako kirolplan gidari bat idazteko” aurrekontuko partida hemendik aurrera “A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin, Baztango kirol-instalazioen plan bat idazteko” izanen da.

Sei. Kultura eta Kirol Departamentuari dagozkion partiden araberako gastu-aurrekontuan, “A50001 A5410 7609 336117 Garesko frontoia eraberritzea” aurrekontuko partida aurrerantzean A50001 A5410 7609 336117 “Gareskoa frontoia eraberritzea 2019an eta 2020an” izanen da.

Zazpi. Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuari dagozkion partiden araberako gastu-aurrekontuan, “B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaldeen merkataritza antolatzeko plana” aurrekontuko partida aurrerantzean “B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaz gaidiko merkataritza buruzko azterlana” izanen da.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jar dezan.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozietako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Eskubide Sozietako Batzordean eztabaidatzeko:

Familia Elkartzeko Gunea gizarte-zerbitzu espezializatu eta doakoa da, Gizarte Zerbitzuen Zorroan eskubide gisa bermatua, elkargune bat eta esku-hartze profesionala eskaintzen dituena, haurrei beren gurasoekin eta familiartekoekin denbora batez elkartzea ahalbidetzeko, banantzeak, dibortzioak edo bestelako inguruabarrek eragindako gatazka-egoerak gertatzen direnean eta, bereziki, genero-indarkeriako egoerak gertatzen direnean, adingabeekiko bisitak zuhurtziarik eta ardura handienarekin egin behar baitira halako kasuetan.

Funtsezko zerbitzu bat da, hortaz, adingabeei bermatu nahi bazaie beren gurasoekin eta familiekin leku neutral eta seguru batean elkartzeko eskubidea, eta aldi berean gurasoei bermatu nahi bazaie seme-alabekiko bisita-araubiderako eskubidea; hartara, adingabeak familiartekoekiko lotura afektiboak gordeko ditu, bere garapen psikiko, afektibo eta emozionalerako baitezpadakoak diren aldetik, eta askatasun eta babes giroan elkartu ahal izanen da haiekin.

Helburu horiek lortzeko eta egoera zehatzaren arabera, Familia Elkartzeko Gunea hainbat gauzatarako erabil daiteke: adingabeak uzteko eta batzeko, gatazkan dauden gurasoen arteko harremana ekiditeko asmoz; kanpoan bizi delako hiri horretan etxerik ez izateagatik, bere etxebizitzak adingabea hartzeko baldintzarik ez izateagatik... zaintza ez duen gurasoak bisitak egiteko elkartzegunean bertan; edo bisitak hirugarrenek zaindu edo begiratu beharrekoak izateagatik zentroan egiteko.

Nafarroan familia elkartzeko 4 gune dauzkagu gaur egun, Nafarroa osoari ematen diotenak zerbitzu: Iruñean bi, Tuteran bat, eta Tafallan beste bat.

Tafallako elkartze-gunea 2018an abian jarri arte, zerbitzu hori behar zuten Estellerriko herritarrei Iruñeko guneetako batean ematen zitzaien hori, herri batetik bestera joan behar izateak erabiltzaile ziren familiei zekarzkien arazoekin.

Baina Tafallako Familia Elkartzeko Gunea abian jarri zenetik (Eskubide Sozietako Departamentuak Tafalla-Lizarran FEG izena eman zion), Estellerriko herritarrei gune horretan ematen zaie zerbitzua.

Aldaketa horrek ez du pertsona erabiltzaile horien guztien arazoa konpondu; batez ere, garraibide propiorik gabeko pertsona zaugarrie-

na, zeinak askotan zerbitzuari nahitaez uko egin beharrean aurkitzen baitira ezintasun fisiko edo ekonomikoagatik, horrek zaurgarritasun handiko egoera batzuetan dakarren kaltearekin.

Lizarrako biztanleriak –non, gainera, epaitegiak baitaude– familia elkartzeko bere gune propioa eduki behar du, adingabeei eta familiei gizarte-prestazio hori egiaz berma dakien.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familia elkartzeko gune bat abian jar dezan Lizarran, gehienez ere urtebeteko epean.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak onetsitako laguntza zuzenen sektore onuradunen zerrenda zabal dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak onetsitako laguntza zuzenen sektore onuradunen zerrenda zabal dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak onetsitako laguntza zuzenen sektore onuradunen zerrenda luzatzea eskatzen dugu.

COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresen kaudimenari laguntzeko aparteko neurriei

buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak besteak beste ezartzen du autonomoentzako eta enpresentzako laguntza zuzenen Covid lerro bat sortuko dela sektore pribatuaren kaudimena aldezteko; halatan, laguntza zuzenak emanen zaizkie enpresei eta autonomoei, baldin eta arauan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Lerroak, guztira, 7.000 milioi euroko zuzkidura dauka. Horietatik, 2.000 milioi Balear Uharteetako eta Kanarietako autonomia erkidegoentzat dira, eta 5.000 milioi, berriz, gainontzeko autonomia erkidegoentzat eta Ceuta eta Melillako hirientzat.

Nafarroako Foru Komunitateak 68 milioi euro jasoko ditu.

Laguntza horiek, betiere, enpresen jarduera mantentzeko eta dibidenduak ez banatzeko konpromisoari lotuta daude, hartara bermatuko baita laguntzen bidez kaudimena sendotuko dela eta ekoizpen-ahalmena eta enplegua handituko direla suspertze ekonomikoaren testuinguruan.

Araukak badu I. eranskin bat, non identifikatuta baitaude gehien kaltetutako 95 sektore ekonomikoak. Eranskin hori nazio-mailako irizpide objektibo batzuetan oinarrituta egin zen: langileen zer ehuneko dagoen sektore bakoitzean Aldi Baterako Enplegu-erregulazioko Espedientean, eta Aldi Baterako Enplegu-erregulazioko Espedientean dauden langileen zer ehuneko sartu den berriz ere lan-merkatuan.

Halere, Ministroen Kontseiluak 5/2021 Errege Lege-dekretuaren aldaketa bat onetsi zuen, eta autonomia erkidego bakoitzari esleitutakoaren

baitan, utzi eginen die beste sektore batzuk ere sartzera laguntza horien onuradun gisa, martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren I. eranskinean jasotzen diren 95 sektoreez gain, pandemiak bereziki ukitu baditu. Erkidego bakoitzari baimena ematen zaio zerrenda hori luza dezan eta laguntza zuzenen onuradun gisa sarditzan beste sektore ekonomiko batzuk ere, ekoizpen-ehunduraren berezitasunen arabera eta pandemiari aurre egiteko neurriek beren enpresetan eta langileengan izandako eraginaren arabera.

Hortaz, gure erkidegoan ahal den enpresa eta langile autonomo gehienei laguntzearren, behean

sinatzen dugun talde parlamentariook honako mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuak onetsitako laguntza zuzenen sektore onuradunen zerrenda luza dezan, halako moduan non Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren zerrendan jasotako jarduera-sektore guztiak sartuko baitira bertan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 4an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Mikel Asiain Torres eta Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan Agoizko, Artziko, Longidako eta Orotz-Beteluko udalekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin zein Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lantalde bat sor dezan Agoizko, Artziko, Longidako eta Orotz-Beteluko udalekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin zein Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Itoizko urtegia egin eta bete ondoren, Nafarroako Gobernuak Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa sortu zuen 2001ean. Fundazioan Agoitz, Artzi, Longida eta Orotz-Beteluko udalek eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak (Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez) parte hartzen zuten.

Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa sortzeko arrazoia honako hau izan zen: "Administrazio publikoek Nafarroan hasi dituzten azpiegitura-obra garrantzitsuak egiteak Administrazioaren esku-hartze behar berriak sortuko ditu; alde batekin, suerta litezkeen zenbait desoreka sozial eta lurraldekoak konpentsatzeko, eta, bestetik, ekimen berrien esparru bat sortzeko, dauden baliabideak aplikatzearren; ekimen horien artean jasotzen dira ukituriko eskualdeen landa garapenera bideratutakoak, esparru guztietan".

Laburbilduz, fundazioaren oinarrizko helburua zen Itoizko urtegiaren inguruko landa-, natura- eta kultura-ondarea babestu eta sustatzea, bai eta eskualde horretako landa- eta nekazaritzagarapenerako, garapen turistiko eta azpiegiturarako eta prestakuntza eta enplegurako jarduerak sustatzea ere.

Helburu horiek lortze aldera, Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioak Itoizko Urtegiko Ingurunearen Garapen Integralerako Plana taxutu eta zertu zuen, 2004tik 2007ra bitarteko epean ezartzeko, "Itoizko urtegiaren inguruneke bizi-kalitatea hobetzeko" xedez. Planak 3 ardatz estrategiko zeuzkan, eta aurrekontua, guztira, 28,2 milioi eurokoa zen.

1. ardatz estrategikoa: Ekipamenduen eta azpiegituren garapena. 5 M€

2. ardatz estrategikoa: Ingurumen-praktika onen erreferentzia-gunea. 2,1 M€

3. ardatz estrategikoa: Zerbitzu hornidura eta sormen-dinamizazioa. 17,6 M€

2014an, Nafarroako Gobernuak Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioa desegin zuen.

Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioari buruz Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostenaren arabera, Garapen Integralerako Planean planteatutako aurrekontutik –zeina 28,2 milioi eurokoa baitzen– 17 milioi euro (guztizkoaren %60) bete zituzten guztira Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta Itoitz Fundazioak, eta lurral-

dean hasiera batean proiektaturiko dirutik 11,2 milioi euro geratu ziren bete gabe.

Gainera, hasiera batean planteaturiko proiektuei proiektu berriak gehitu zitzaizkien, fundazioak eginak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak kudeatu beharreko 17,92 milioi euroko aurrekontuarekin. Horren funtsak Ingurumen, Landagune eta I-tsas Inguruetako Ministerioak jartzeke geratu ziren.

Egoera horretan, Itoizko urtegiaren inguruetako udalerriek, Parlamentuan eginiko agerraldi ezberdinetan, bai eta bileretan ere, adierazi dute eskualdearen garapenarentzat lagungarri izanen diren bitartekoak antolatu beharra dagoela, azpiegitura hidrauliko batek beren lurraldean duen inpaktua ere samurtuko dutenak.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-batzorde bat era dezan, hilabeteko epean, Agoitz, Artzi, Longida eta Orotz-Beteluko udalerriekin eta Lurralde Kohesiorako nahiz Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako departamentuekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera, toki entitateek azaldutako premiak aintzat hartuz.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentariak: Ramón Alzórriz Goñi, Pablo Azcona Molinet eta Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea 2+2 edukiera handiko errepide/autobia bihur dezan.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121-A errepidea 2+2 edukiera handiko errepide/autobia bihur dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, N-121-A errepiderako soluzio bezala 2+2 autobia/edukiera handiko errepide bat eraikitzeari buruzkoa.

N-121-A errepidea Nafarroako lurralde kohe-siorako azpiegitura den aldetik, behartuta gaude erabaki koherenteak hartzera, errepide horretarako oraintsueneko aurreikuspenei egokituak.

Errepide horrek jarduketa estrategiko baten xede izatea eskatzen du, errepideari beste dimentsio bat emanen diona eta segurtasun nahiz egokitasun neurriak bermatuko dituena. Gaurko nahiz etorkizunerako aurreikusitako trafiko-dentsitateak horretara behartzen gaitu. Proiektu horri ezinbestean ekin behar zaio, Nafarroaren iparraldeak bere enpresa-jardueraren galera eten ahal izan dezan eta despulazio-prozesuari galga jarri ahal izan diezaion, hartara produkzio-zentro bihurtu ahal izateko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. N-121-A errepidea 2+2 autobia/edukiera handiko errepide bihur dezan.

2. Helburu hori lortzeko beharrezkoak diren erabaki eta jarduketa guztiak urgentziaz har eta gauzatu ditzan, 2+1 errepide bihurtzeko aurreikusitako obrak egokituz 2+2 autobia/edukiera handiko errepide bat egiteko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan.

Nafarroan etxebizitza babestuaren eskatzaile direnen kopurua gero eta azkarrago, eta kezkatzeko moduan, ari da areagotzen urteotan.

Horrela, Errealitate Sozialaren Behatokiaren datuen arabera, 2019ko ekainean etxebizitza babestu baten esperoan zeuden pertsonen eta familien kopurua 8.535ekoa zen.

Kopuru hori etengabe ari da hazten, eta joan den astean Arartekoak 10.000 eskatzailekoa izateraino iritsi zela jo zuen.

Nafarroako Gobernuak problema gero eta handiago honi emandako erantzuna hutsaren hurrengo izan da; izan ere, abian dauden etxebizitza-sustapenak aintzat harturik, urte gehiegi igaro beharko lirateke gero eta handiagoa den gizarte-eskaera horri erantzuteko.

Okerrena da badaudela etxebizitza sozialerako eskaera horri erantzun diezaioketen planeamendu jada hasiak, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak aitzakia ezberdinak tarteko gerarazita dituztenak.

Halaber, Arartekoak urtero egiten duen txostenak, gizarte-eskaera larrigarri hori egiazta-tzean, beharrezkotzat jotzen du talka-planak egitea, antzeko beste egoera batzuetan egin bezala, itzarote-zerrenda erraldoi horri aurre egiteko.

Bestalde, alokairuko etxebizitza baten beharrenda dauden pertsonentzako laguntzen programa eta deialdiak, hain beharrezkoak, orain arte eskasak izateaz gain, aplikatuak dira halako moduan, eta jasotzen dituzten arauak halakoak dira, non ez baitira konpontzen suertaturiko premia-egoera ugari.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Berriz ekin diezaien AHTaren eta Donapearen Udalez gaindiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduen onespenerari eta exekuzioari (7.000 etxebizitza babestu baino gehiagoko eta 3.000 etxebizitzako edukierak, hurrenez hurren), eta azkartu ditzan.

2.- Berrikus dezan David eta Emanzipa programen araudia, horren aplikazioak gaur egun sortzen dituen egoera bidegabeak konpontzeko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

F saila:
GALDERAK

Galdera, pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tributu-neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tributu-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zer balorazio egiten du pandemiak eztanda egin zuenetik COVID-19a dela-eta hartutako tributu-neurriei dagokienez?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, zor-jaulkipena ezagutzera emate aldera nazioarteko entitate eta inbertsiogileekin izandako bilerei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, zor-jaulkipena ezagutzera emate aldera nazioarteko entitate eta inbertsiogileekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Nafarroako Gobernuak nazioarteko entitate eta inbertsiogileei jakinarazi die zor-jaulkipenak zer ezaugarri dituen.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du entitate eta inbertsiogileekiko bilera horiei buruz?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, maiatzaren 9tik aitzinako deseskalatze-prozesuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, maiatzaren 9tik aitzinako deseskalatze-prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Eskatzen da galdera Batzordeak maiatzaren 18an, asteartea, eginen duen bilkurarako gai zerrendan sartzea.

• Zeri erantzuten dio Nafarroako Gobernuak maiatzaren 9tik aurrera proposatzen duen deseskalatze-prozesuak?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko landa-planari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, etxebizitzak zaharberritzeko landa-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan datza Etxebizitzak zaharberritzeko landa-plana, eta zeintzuk dira lortu nahi diren helburuak eta planaren exekuzio-faseak?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, gurasoen koordinatzailearen figurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga andreak gurasoen koordinatzailearen figurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak, ikusirik EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Arantza Izurdiaga Osinaga andreak idatzizko erantzuna eskatuz eginitako galderak (10-21/PES-00098), zeinak honela idatzita baitzeuden:

“Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen bidez, 77. legean gurasoen koordinatzailearen figura sortu zen, erabaki judizialen irismenetik harago dauden egoera gatazkatsuak konpontzen saiatzeko, edo erabaki horiek betetzea errazteko.

Zenbat jarduketa burutu ditu gurasoen koordinatzaileak legea indarrean sartu zenetik?

Zer ahalmen ari zaizkio ematen gurasoen koordinatzaileari?

Ezkontideetako bat familia- edo genero-indarkeria dela-eta kondenatua izan den genero-indarkeriako prozesu judizialean nahiz ezkontideen arteko krisiko prozesuetan esku hartu al du gurasoen koordinatzaileak?

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du figura horri buruz?”

Honako erantzun hau ematen du:

Jurisdikzio zibila, eta batez ere familia-arloko prozesuak, aldaketa handiak pairatzen ari dira azken urteotan; bai legegintzakoak, bai jurisprudenzialak. Epailen esku-hartzea gero eta zorrotzagoa ari da izaten, eta krisian dauden familientzako laguntza-baliabideak ezartzea nahitaezkoa da epaileek modua izan dezaten benetako babesa emateko daukaten betebeharrak konstituzionala bete ahal izan dezaten.

Nafarroa ez dago horretatik guztiatik kanpo, eta gure Parlamentuan berriki aho batez onetsita Foru Berriari egin zaion aldaketak xede du gure araudi

zibila familia-eredu berriei eta familien beharrizan berriei egokitzea. Ildo horretan, egungo errealitate sozialari moldatuz, asmoa da bikote-hausturetako laguntza-neurrien sistema bat abiaraztea, baliagarriak izan daitezen haustura horiek hobeto kudeatu eta ebazteko. Neurri horietako bat dugu Gurasotasun Koordinazioa. Foru Berriko 77. Legeak espresuki adierazten du hori dela gure epaileek eskueran izan beharrekoak dituzten figuretako bat, egokitatzat joz gero erabil dezaten.

Arau hori bere testuinguruan kokatzearen, oroitarazi behar da gure Foruak bere sorreratik bertatik bilatu duela guraso-ahalaren araubidea integrala eta arau-igorpenik gabea izan zedin. Horren edukia osatzen duten betebeharrak eta ahalmenak modu agortzailean arautu dira Konpilazioa egitearekin, zeinak instituzio hori "guraso-erantzukizun" terminoaz izendatzen baitu. Horrek ahalbidetu du zerikusidunak diren instituzioak araupezea, hala nola zaintza eta jagoletza, jada nafar legegileak foru lege berezi baten bidez arautua zeinak bere garaian aurreikusi zuen, hain zuen ere, Foruaren testuan sartua izatea, haren familia-zuzenbidearen osoko erreforma baten kariatz; adingabeek beren gurasoekin eta beste senitarteko batzuekin egonaldiak eta kontaktuak izatea – orain arte, hori seme-alabatasunaren sailean eta Haurrentzako babesari buruzko Foru Legean jasotzen zen–; eta zenbait betebeharraren araubidea, hala nola elikatze, biztantzak, hezkuntza, eta laguntza material eta emozionalerako betebeharrak, horiek adingabeen oinarrizko beharrizan guztiei erantzuteko moduko gisa harturik. Horrek ezinbestez bideratzen du aurreikusterak nori esleitu behar zaion familiaren etxebizitzaren erabilera eta zein izan diren haren gastu arrunt nahiz berezietarako ekarpenaren nondik norakoak.

Araubide berri hori argiro lerratzen da gurasoen arteko gurasotasun-ituna sustatzera, familia-harremanak arautu eta gatazkak ekiditeko lehenbiziko hautabide gisa. Eta, ordezkari moduan, erabakimen zabala ematen dio epaileari, "favor filii" oinarrizko printzipiotik abiatuta kasu zehatz bakoitzean neurriak hartu ahal izan ditzan, gainditze aldera testu zibil komuneko hutsuneak nahiz zurruntasunak, azkenaldi honetan hain argi eta garbi geratuak, gauzatu diren egoera eta zirkunstantzia zehatzen ugaritasunean. Eta testuinguru horretantxe jasotzen du Foru Berriko 77. Legeak, espresuki, gurasotasun-koordinazioa, epaileak guraso-erantzukizuna ikuskatzeko har ditzakeen neurrien artean.

Arauzko agindu horretaz harago, Justizia Zuzendaritza Nagusiak figura horren alde eginiako apustuak zerikusia dauka baliabide horrek eskain-

tzen duen balio erantsiarekin. Hori identifikatzeko, kontuan hartu beharra dago ezen, bikote-haustura bat gertatzean seme-alaba amankomunikatzen, haien gurasoek ahalegina egin behar dutela, seme-alaba horien mesedetan, gurasokidetasun positiboz jardutea ahalbidetuko duten akordioetara iristeko. Hori dela-eta, familia arloko jurisdikzioan, beste batzuetan ez bezala, benetako babes judizialak ez du zertan mugatu alderdien arteko liskarrak zuzenbidearen arabera onbidertzeko betebeharrak, baizik eta zilegi du proaktiboki jardutea, alderdiek elkarrekin onar ditzaten erandako adingabeekiko dituzten erantzukizunak, adin horien interesa baita lehenetsuz ase beharrekoa.

Horrek lehenik eta behin behartzen gaitu kontziente izatera familia-jurisdikzioaren alorrean aurkaritza-sistemak dituen mugapenez. Izan ere, sistema judiziala mugatzen bada alderdiei entzun eta haien eskakizunei buruz ebaztera, gerta liteke gatazka goriko egoeretan gurasoek elkarrekiko duten negatibotasuna hauspotua suertatzea. Horrelako egoeretan, lotsa-, sumin- eta etsaitasun-sentimenduak areagotu egin ohi dira aitak edo amak jendaurrean azaltzen dituenen, pertsonalki edo bere legegariaren nahiz lekuko bidez, bestearen ezaugarriak eta portaera negatibak; maiz asko, horiek beren egiazko neurritik kanpora aterata. Etsaitasun horrek etsaitasuna, sumina eta tentsioa barreiatzen ditu gurasoen eta seme-alaben arteko elkarrekintzetan, halako moduz non gorakada izan ohi duten kasuko gatazkak eta portaera kaltegarriak, eta familiako kide guztien egoera pertsonalak okerrera egiten duen.

Horregatik, bikote-hausturako prozeduren lanetan ikusmolde errestitutibo eta terapeutikoa txertatzea, kontuan harturik bikotekideak zein egoera psikoemozionaletan egon daitezkeen, ez da jokabide-zientziak soilik berezko dutena: benetako babes judizialaren agindu konstituzionala betetzeko modua ere bada, horren amai-helburua, tankera horretako prozeduretan, delako seme-alaba amankomunen eskubideak gailenaraztea; batik bat, haien zaurgarritasuna larriagotu egiten denean haien gurasoen arteko gatazkaren ondorioz. Gurasotasun-plana haien interes gailenaren mesederako bitartekoa izaki, plan hori bideragarri egiteko lagungarri diren laguntza psikoedukatiboko programek hobekuntza nabaria dakarkiete justizia-alorreko zerbitzu publikoari.

Ildo horretatik jotzen du zaintza partekatuen aferarako jardun judizialeko irizpideen gida berriak, duela gutxi Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak onetsiak. Berdintasun Batzordearen ekimenez, aipatu gidak azterlan

xehakatu bat egiten du, arlo desberdinetako profesionalen lanetik abiatuta, bikotearen hausturak familiako kide guztiengan daukan inpaktu psikologikoari buruz. Testuinguru horretan, VI. eranskina justizia terapeutikoko lanabes gisa jasotzen du GKa, epaileen erabakien mesedetan dagoena, familia oso gatazkatsuekiko esku-hartze judizialaren datu muntadunen multzo batetik abiatuta. Datu horien artean honakoak azpimarra daitezke:

- Gatazka-joeradun kasuak muturrera eramana suertatzen direla ez badira ohiko kontrajarren-prozeduren bitartez ebazten.

- Horrelako egoerak goiz identifikatzea ez dela gauza erraza izaten, baina, zenbat eta berandua go esku hartu, orduan eta zailagoa gertatzen dela egoeraren kudeaketa.

- Familien % 25ek gatazka handiko egoera bat sortzen duela, auzitegien lanaren % 90 osatzen duena; batik bat, epai-betearazpenari dagokionez.

- Egoera horretan, kalterik handiena seme-alaba adingabe inplikatuak izan ohi direla, egokitzapenarekin, harreman sozialekin eta eskolaprototarekin zerikusia duten problemak pairaturik. Larrimina, agresibitatea, ohitura aldrebesak eta abar pairatu ohi dituzte, horrek guztiak beren heldueroan duen inpaktu handiaz gain.

Bada, horixe bera dugu gure araudi zibilak ere egiten duen apustua, eta horregatik, Foru Berriaren ikusmoldea da gure epaile eta auzitegiek urgazpen espezializatu bat eduki behar dutela beren epaia edo gurasotasun-plana gauzatzeko, xede nagusizat harturik gurasoarteko gatazkan murgildurik suertatzen diren seme-alabaren bizitza hobetzea, haien gurasoek harreman gatazkatsua dutenean elkarrekin, argiro seme-alabengan eragiten eta haien garapena baldintzatzen duena.

Foru Berriaz gain, gure beste arau-erreferentzia nagusia apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea izan behar da, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa; ezen, genero-ikuspegiak transbertsalki gurutzatu behar baditu politika publiko guztiak, bereziki garrantzitsua da jorrazten ari garena bezalako alor batean. Izan ere, nekez ekin dakioke bikote heterosexual bateko kideen arteko gatazkak konpontzeari, kontuan izan gabe genero-desparekotasunaren egiturazkotasuna. Lantzen ari garen aferan, errealitate hori bi alderditara proiektatzen da:

- Batetik, gogorarazten digu desparekotasun hori genero-estereotipo eta -roletan sustraituta dagoela eta haien emaitza dela, eta haiek oraindik ere markatuak direla, bereiztaileak direla eta begiramen sozial ezberdina dutela, halatan desorekaz-

ko botere-harremani eutsirik. Horiek gainditu ahal izateko beharrezkoa da, besteak beste, zaintzalanetan ardurakidetzaz aritzea, aipatu foru legeko sarrerak adierazten duen bezala, hizpide hartzen duenean emakumeen presentzia eta ikusgaitasuna beharrezkoa dela ekoizpen-lanean eta eremu publikoan, azpimarraturik ezen, halaber, beharrezkoa dela, horren eskutik, eremu pribatuan handiago izatea gizonezkoen presentzia, haien ardurakidetzaz sustatuz etxebizitzarena eta familia-zaintzarena bezalako esparruetan, zeinak hain loturik baitaude gurasotasun-betebeharrekin, eta hain funtsezkoak baitira biziari eusteko.

- Bestetik, nabarmentzen du erne egon beharra dagoela desparekotasun horren adierazpen muturrekoena den emakumeenganako indarkeriaren aurrean, eta horren agerpena, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak jasotzen dituen ager-moldeetako edozeinetan, bere hutsean izanen litzateke berdintasunaren, errespetuaren eta elkarren errekonozimenduaren balioen ukazioa, hain zuzen ere balio horretan behar duenean oinarrituta egon, kasu zehatz bakoitzean, GKaren egokitasunak eta bideragarritasunak.

Ildo horretatik, politika publikoek genero-indarkeriaren aurkako borrokarekin lerrokatuta egon behar dute, horretarako beharrezkoak diren bermeak antolatuta. Lehentasun hori aplikagarria zaie, baiki, epaitegiek urteak direla eskueran dituzten baliabide guztiei (lantalde psikosozialak, topaguneak, bitartekotza-zerbitzuak...), zeinak bideratuta baitaude epaitegiek beren erabakiak familia-gatazkako testuinguruetan hartu ahal izan ditzaten, eta lehentasun horrexerri erantzuten dio Nafarroako epaitegiek kasuak Gurasotasun Koordinazioaren eskuetan uzteari buruzko protokoloak:

- Aitzinsolasean, genero-indarkeriaren aurrean erne egon beharra ez da adierazpen orokor huts gisa aipatzen, baizik eta horren osagarri gisa baieztatzen da horren agerpena izanen litzatekeela GKaren egokitasunak eta bideragarritasunak kasu zehatz bakoitzean oinarri izan behar dituen balioen ukazioa. Alderdiek sinatzen duten konpromiso-agirian ere horren bazterketa jasota geratzen da.

- Figura horrek araubide izanen dituen lan-printzipioetako lehenak ildo beretik jotzen du.

- GKa egiten dutenen eginkizunak adieraztean ezartzen da zaindu behar dutela gurasoen berdintasunaren, errespetuaren eta elkar-errekonozitzearen printzipioak, eta hala halaber esaten da horiek betetzearen araberakoa izanen dela gatazka jorrazteari begira GKak duen egokitasuna.

- Epaile-berbideratzearen dinamika ezarri baino lehen aurreikusten da balioespen bat egitea GKak kasu zehatz horretan duen komenigarritasunari buruz, eta horretarako aintzat hartu beharko ditu berdintasunaren, errespetuaren eta elkar errekonozitzearen printzipioak. Une oro zaindu beharko da printzipio horiek betetzen direla, bai eta esanbidez baztertu ere emakumearenganako indarkeria oro.

Edozein kasutan, bai berme horien eragingarritasuna bai beste batzuk ezarri beharra ere etengabe ebaluatu beharrekoa izanen da, abiapuntuizat harturik praktikarekiko kontrastea. Horretarako, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekiko elkarlana lehentasunezkoa izanen da zuzendaritza nagusi honentzat. Beste horrenbeste esan daiteke zerbitzua kudeatzen dutenen profila: genero-indarkeriaren alorreko prestakuntza berezia izan beharko dute, beren eginkizunetarako egokia eta aipatu ditugun gainerako baliabideetako langileei eskatzen zaizkien baldintza berberak betetzen dituen.

Bukatzeko, azpimarratu behar dut gure departamentuak justizia errestituatiboaren, justizia terapeutikoaren eta, batez ere, GKaren alde eginiko hautuak feminismoaren aldeko apustuari erantzuten diola, zeinak departamentuaren legegintzaldi-programa egituratzen baitu. Izan ere, feminismoa eraldaketarako praxi gisa ulertzen badugu, teoria politiko gisa, errealitatearen analisisirako tresna gisa, edo bizi-filosofia gisa, apustu horrek ondorio argi bat dakar, gure ustez: Justiziako zerbitzu publikoa hobetzerakoan, ezin diogu uko egin ahalegin bat egiteari, justiziaren esku-hartzea lagungarri izan dakien, auzitegi-tara jotzen duten pertsonen, posible den orotan eta legearen esparruan betiere, askatasunezko soluzioak lortzeko, beren gatazken azpian dauden egoerak onbidertzekoak, batez ere gatazka horiek hain modu zuzenekoan eragiten dietenean haien seme-alaba adingabeei.

Horixe da gure konpromisoa, eta hori lortzearen elkarlanean ariko gara beren eskuetan Justizia humanoago, hurbilago eta herritarrentzat lagungarriago bat egitea daukaten pertsona eta erakunde guztiekin. Langintza horretan, parlamentari andre horren eta berak ordezkatzeko duen talde politikoaren laguntza izatea espero dugu.

Interes zuzenekoak zaizkion datuei dagokienez, honako hau esan beharra daukat:

1. Gurasotasun Koordinazioko Aukera taldea 19 kasu/familiak ari da arduratzen. Horietako bi aztertze-fasean daude, esku-hartzeari ekin ala ez erabakitzeko.

Iruñeko Lehen Auzialdiko 3. Epaitegia: 8 kasu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Iruñeko 1. Epaitegia: 3 kasu - Horietako bat aztertze-balorazio fasean

Lehen auzialdiko eta instrukzioko Tuterako 3. epaitegia: 2 kasu.

Lehen auzialdiko eta instrukzioko Tuterako 2. epaitegia: Kasu bat.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Tuterako 1. Epaitegia: Kasu bat.

Lehen auzialdiko eta instrukzioko Agoizko 1. epaitegia: Kasu bat.

Lehen auzialdiko eta instrukzioko Agoizko 2. epaitegia: Kasu bat.

Lehen auzialdiko eta instrukzioko Lizarrako 2. epaitegia: Kasu bat.

Lehen auzialdiko eta instrukzioko Tafallako 2. epaitegia: Kasu bat, aztertze-fasean.

2. Gurasoen koordinatzaileari esleitzen ari zaizkion ahalmenei dagokienez, epaian esanbidez adierazitakoak dira, ezen gurasoen koordinatzaileak –GK– zorrozki epailearen agindupean baiduz ez baitu esku hartzen. Halaber, epaileak GKaren esku-hartzearen prozesu osoa gainbegiratzen du.

Testuinguru hori abiapuntu harturik, GKak, Nafarroan onetsita dagoen protokoloari jarraikiz, honako xedeekin esku hartzen du:

- Familiaren eta seme-alaben egoera ebaluatzea.

- Gurasoei eta haien legetariei esplikatzeko zer eginkizun duen eta nolakoa den epaitegiarekiko erlazioa.

- Gatazka baketzea eta komunikazioa erraztea.

- Jarduketak gurasoen artean koordinatzea eta familiarekin jardunean ari diren entitateetako profesionalekin jarduketak koordinatzea.

- Bi gurasoei lagun egin eta orientazioa ematea baterako nahiz banakako esku-hartzeetan.

- Gurasoekin akordioak iriste aldera lan egitea eta, horiek lortuz gero, horiek epaileari proposatzea.

- Epaileari gomendioak egitea, ez denez figura neutral bat.

- Epaitegiari kasu hauen jarraipena egiten laguntzea.

Oro har, ez dago erabakiak hartzeko gaituta, salbu eta epaiak espresuki adierazitako ebatz-ahalmenen bat baldin badu, eta halakorik ez da orain arte gertatu.

GKa ez da terapeuta bat, ez eta aholkulari juridiko edo bitartekari ere.

GKaren esku-hartzearen jomuga seme-alaben babesa eta ongizatea da.

3. Ea gurasoen koordinatzaileak genero-indarkeriako prozesu judizialean edo ezkontideetakoaren bat etxeko nahiz genero-indarkeriagatik zigortua izan den ezkontza-krisiko prozesuetan esku hartu ote duen dioen galderari buruz, lehenik eta behin 6. orrialdean horretaz azalduetakoak seinalatu behar dut. Eta, bestetik, emakumearen aurkako indarkeriaren arloko Nafarroako epaitegiek 4 kasu bideratu dituzte; horietako batean, gurasoa zigortua izan da salaturiko gertakariengatik, eta beste hiru kasuetan, gurasoak absolbitu egin dituzte.

Aztertze-balorazio fasean dagoen indarkeriakasua guraso zigortuarena da. Kasu horretan, bi gurasoek epaileari eskatu diote GKren izendapena erabaki dezala, eta epaileak, eskatuaren ildotik, GKra bideratzea erabaki du, baloraziorako.

Esku-hartzearen onuren aztertze-balorazio fasean dago kasua, horren helburua izanik gatazka moteltzea eta bienak diren seme-alabak babestea, epai bidez erabakitako neurriak adingabeentzat lasaitasun eta babesik handieneko testuinguruan bete ahal izan daitezten.

Azkenik, eta egoki deritzodan informazioa osotuz, zilegi bekit jarraian hitzez hitz jasotzea GKra bideratzeko prozesua eta esku-hartzea egiteko irizpideak arautu eta antolatzeke protokolo indarduna:

1.- GKrako bideratzea ebazpen judizialez egiten da, eta Nafarroako Foru Komunitatean familia-prozedurak izapidetzen dituzten epaitegiek egiten dute. Bideratze hori protokolo honetan jasotzen diren irizpideei jarraikiz egiten da.

GKa gauzatuko duten profesionalak Nafarroako Gobernuak xede horretarako eta Justizia Zuzendaritza Nagusiak eginiko hautaketaren ondoren izendatzen dituenak izanen dira.

2.- GKaren esku-hartzearen balioespena magistratuek eta epaileek eskatu ahalko dute, bideratzea egin aurretik. Kasu horretan, GKa gauzatzeko hautaturiko pertsonen epaitegiaren ebazpen baten bitartez eskatuko zaie aipatu balorazioa. Eskaera hori NAMlko gizarte laneko zerbitzuen bitartez igorriko da. Behin GKak kasua baloraziorako eskuraturik, aztertu egingen du, eta

esku-hartzearen komenigarritasunari eta helburuei buruzko txosten bat jaulkiko du. Halaber, kasu bakoitzerako profesional zehatza proposatuko da.

Horrez gain, funtzionalki NAMlra atxikita dauden psikologoek eta gizarte-langileek zilegi izanen dute, egoki deritzotenean, epaitegiari GKaren esku-hartzea proposatzea, peritu-txostena egin den kasuetan edo aurretiaz ebazpen judizialak zehaztu dituen epai ondoko jarraipenen bitartez esku hartzen duteneko kasuetan. Kasu horietan, GKarako bideratzea zuzen-zuzenean egin ahal izanen du magistratu edo epaileak, irizteagatik balioespena jada egin duela peritu- edo jarraipen-lanean jardun den profesionalak.

Nolanahi dela ere, balioespen horrek berdintasunaren, errespetuaren eta elkar errekonozitzearen printzipioak aintzat hartu beharko ditu, eta horien errespetua une oro zaindu, emakumearenganako indarkeria-mota oro bazterturik.

3.- Bideratzea ebazpen judizialez, auto nahiz epai bidez, erabakiko da, eta hori behar besteko titulua izanen da GKari sarbidea emateko bai espediente judizialera, bai eta esku-hartzea egiteko beharrezkoa den beste profesional batzuei buruzko informaziora ere. Dena den, aipatu ebazpenak adierazi beharko ditu esku-hartzearen xedea, hasiera batean aurreikusitako iraupena eta, kasua bada, GKari kasu bakoitzean ematen zaizkion ahalmen zehatzak. Xeheki, epaiak honako hauek definitu beharko ditu:

- Zer profesional hautatzen den GK izateko
- Esku-hartzearen helburua.
- Gutxi gorabeherako denbora (3 hilabetetik urte eta erdi bitartean). Hasiera batean ezin bada hori zehazki ezarri, iraupena esku-hartzea gauza bitartean zehaztu ahalko da.
- Prozesuan parte hartu beharrekotzat jotzen diren senitartekoak (GKak zehazten dituenak).
- Epaitegiarentzako jarraipen-txostenen aldizkakotasuna.
- GKak familiarekin esku hartzen duten beste profesional batzuen informaziora izanen duen sarbidea, xede bakarra izanik esku-hartzea koordinatzea.
- Abokatuen elkarlana.
- Hurrekin hitz egiteko gaitasuna.
- Zer-nolako erabakiak, halakorik baldin bada, hartu ahal dituen urgentziak edo, funtsatzea azaldu ondoren, epailearen erabakiz.
- Datu pertsonalak tratatzeko baimena

Esku hartzen hasi aurretik, GKak konfidentzialtasun-klausula bat sinatu beharko du espediente judizialek lortutako informazioari dagokionez eta beste profesional batzuegandik lorturiko informazioari dagokionez, azken kasu horretan salbuespena izanik epaitegiarekiko komunikazioak, inguruabar hori gurasotasun-prozesuan zeresana duten alderdiei jakinarazi beharrekoa denez gero.

Halaber, eta bere esku-hartzeari ekin baino lehenago, GKak gurasoei baimen informatua eskatu beharko die, espediente judizialek nahiz beste profesional batzuegandik lortzen dituen datuak tratatzeko, eta kasu honetan Datu Pertsonalak babesteko Lege Organikoan xedaturikora lotuta egonen da.

4.- Ebazpen judizial bidez GKaren esku-hartzea erabaki ondoren, horri horren berri emanen zaio, NAMIko gizarte-langileen bitartez, zeinek kasua erregistratuko eta bideratze-orria beteko baitute. Jarraian, GKak informazio-saio bat egingen du gurasoekin eta abokatuekin, horretarako elkarriketa batean, zeinetan esplikatuko baitu kasu bakoitzean erabakitako izendapena eta esku-hartzea. Gurasoek eta haien legegariak onarpen-dokumentu bat izenpetuko dute, non honakoak zehaztuko baitira:

- Esku-hartzearen definizioa
- Zer gauza egin ahalko dituen GKak
- Gurasoek hartutako konpromisoak
- Zerbitzuaren denbora eta amaiera

5.- GKa izendatzeak esan nahi du horretarako hautaturiko profesionalak kargua onartzen duela. Profesional hori epailearen eta/edo magistratuaren aurrean behartuta egonen da egin behar dituen txostenak egitera eta epaitegiak egiten dizkion informazio-eskaerei erantzutera.

Alderdiek sinatuko duten bideratze-orrian halaber agertuko beharko da gurasoek eta legegariak onartu egiten dituztela zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko arauak eta ikastetxeengandik, osasun-etxeengandik, oinarrizko gizarte-zerbitzuegandik edo familiarekin jardun diren bestelako erakunde batzuegandik zuzenez informazioa GKak lortu ahal izatea, hori beharrezkoa izanez gero bere lana egiteko.

6.- Ebazpen judizialak ez badu bestelakorik adierazten, GKak hasierako hautapen-txosten bat jaulkiko du; beste bat, esku-hartzeak dirauen bitartean; eta beste bat, prozesuaren bukaeran. Nolanahi dela ere, gertatzen den edozein gorabehera jakinaraziko dio epaitegiari GKak, iruditzen bazaio erakunde judizial horrek jakinaren gainean egon behar duela. Halaber helaraziko dizkio muntadun jotzen diren oharra. GKak jaulkitako txostenek egoera eta horren bilakaera deskribatuko dute. Ez dira, baina, auzitegi-balorazioko txostenak.

Bideratzea erabakitzen duen agintari judizialak zilegi izanen du prozesuaren bilakaerari nahiz gertaturiko gorabeherari buruzko txostenak eskatzea GKari, beharrezkotzat jotzen duen orotan.

7.- GKan diharduten pertsonen Justizia Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontutik ordainduko zaie betetzen duten eginkizuna. Aurretiaz, zuzendaritza nagusiak tarifa batzuk ezarrita izanen ditu, egin beharreko txostenen izaerari erreparatuz.

8.- Esku-hartze prozesu osoan zehar bete beharrekoa izanen da datuak babesteko eta konfidentzialtasunerako betebeharra, zeina espresuki bermatuko baita. Hori prozeduran jasota utzi beharko da, egoki diren ondorioetarako. Betiere, GKak sarbidea izanen du bere lana egiteko beharrezkoa izanik prozesuaren espedientean jasota dagoen informazioa, zeina organo judizialak erabakiko baitu, kasu bakoitzean.

9.- GKak ez du zilegi izanen prozedurarekin lotura duten zertzeladei buruz erabakitzea horretarako espresuki gaituta, izendapenean, egon gabe. Gaikuntza hori, bideratzea erabaki duen agintari judizialak emana izan beharko da.

10.- Indarreko araudiaren arabera kasu bakoitzean eskudun den organoak modua emanen die, GK gisa izendatuak izan diren pertsonen, Justizia Administrazioaren instalazioetan aretoak eta/edo bulegoak erabiltzeko, halatan gurasoak eta, kasu bada, adingabeak artatzeko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

